



FAMILIA DESBERDINAK

Doinua: Goizian goiz jeikirik I-A

Neurria: Kopla txikia. Bi puntuko txikia (ip) / Lauko txikia (hg)



Estitxu Arozena Albizu
(1975 Mutriku, Gipuzkoa)

- 1 Famili desberdinak urrun joan **gabe** gure ikastetxean mota aunitz **daude**.
- 2 Lurrek bi ama dauzka lau aitona-**amona** poz eta maitasunez sortzen da **pertsona**.
- 3 Liam hiru urtekin adoptatu **zuten** bere jaioterrira joango da **aurten**.
- 4 Lea alaba bakarra ari da **handitzen** bere etxean ez da bakarrik **sentitzen**.
- 5 Lehen sei ziren etxean eta orain **bikiak** denak babesten ditu etxetxo **ttikiak**.
- 6 Ibrahimeren amak ez du **bikoterik** biak batera daude indarrez **beterik**.
- 7 Jaimen aitatxo ez da bizi **beraiekin** bideodeien bidez noiznahi **elkarrekin**.
- 8 Minbiziak eraman zuen Jonen **ama** beretaz oroitzen da janztean **pijama**.
- 9 Lizarren gurasoak bananduta **daude** horregatik da bera bi etxeren **jabe**.
- 10 Harrera-etxe baten dago **Cecilia** hango lagunak dira bere **familia**.
- 11 Aitatxo eta amatxo, anaia, **arreba** baina perfekziorik posible **ote da?**
- 12 Bizitza nora doan ezin dugu **jakin** pozik bizi gaitezen **daukagunarekin**.

